

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

81/2019 Foru Agindua, martxoaren 26koa. Behin betiko onestea Guardiako udalerriko hirigintza planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, "Hegoaldeko industria area" izeneko 25 eremuko lerrokadurei buruzkoa

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Guardiako Udalak, 2018ko irailaren 13ko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualari, hain zuzen, "Hegoaldeko industria area" izeneko 25 eremuko (14-819 lurzattia) lerrokadurei buruzkoari, eta aldaketa hori jendaurrean jartzea hilabetez. Horretarako, iragarkiak argitaratu ziren 112. ALHAOn (2018ko irailaren 28koa) eta 2018ko irailaren 25eko "El Correo" egunkarian.

Bigarrena. Udalak honako hauei ere jakinarazi zien hasierako onespinen erabakia: Paganosko Administrazio Batzarrari, AFaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari eta URA-Uraren Euskal Agentziari.

Hirugarrena. Ingurumen ebaluazio estrategikoko espedientea izapidetu da Ingurumen eta Hirigintza Sailan, eta abenduaren 21eko 369/2018 Foru Agindua eman da, "Guardiako udalerriko hirigintza planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, 25, "Hegoaldeko industria area" izeneko 25 eremuko lerrokadurei buruzko" Ingurumen Txosten Estrategikoa egiten duena.

Horri dagokionez, ingurumen txosten estrategikoak ezartzen duen baldintza da aldaketa puntualaren hirigintza agiriaren eranskinean eranskin gisa sartzea ingurumen integrazioarako eta babeserako neurriak.

Laugarrena. Jendaurrean egoteko epean ez zen inongo alegaziorik aurkeztu, eta Udalak, 2018ko urriaren 30eko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Bosgarrena. Guardiako Udalak espedientea bidali zuen, aldundiak behin betiko onar zezan (sarrera erregistroko data: 2018ko abenduaren 19a).

Seigarrena. 2019ko otsailaren 5eko irteera datarekin, udalari idazki bat igorri zitzaion adierazteko espedientea aztertu ondoren eta dagokion txostena egin baino lehen dokumentu osagarri batzuk aurkeztu behar zituela.

Zazpigarrena. Udalak aldundiaren Erregistro Orokorreko 20019ko otsailaren 27ko sarrerara data duen idazki bat aurkeztu zuen eta, horrekin batera, beste dokumentu tekniko bat, Udalbatzak 2019ko otsailaren 13ko ez-ohiko bilkuran onetsia.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Guardiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak Herrilan eta Hirigintza Saileko diputatuaren abenduaren 23ko 1273/2002 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren. Guardiako Udalak sustatu eta izapidetu duen aldaketaren helburua da grafikoki aldatzea "Hegoaldeko industria area" izeneko 25 eremuko 14-819 lurzatiak mugetaraino duen tartea indarreko udal planeamenduko arau subsidiarioen indarreko plano hauetan: II.4.1. Planoa. "Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Hiri Egitura, Bide Sarea eta Zonakatze Xehekatua: Guardia" eta II.5.1 plano. Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Eraikitze baldintzak, luraren jabaria eta ondarearen babesa: Guardia".

Beraz, antolamendu xehekatuko arau subsidiarioen aldaketa puntuala da, egitura antolamendua aldatzen ez duten hiri lurzorua parametroei baino ez baitie eragiten.

Bigarrena. Aldaketa honen justifikazioa da, agiri teknikoan adierazitakoaren arabera, A-3216 errepidearekiko eraikuntza lerroa zuzentzeko premia, Arabako Lurralde Historikoko Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak ezarritakora doitzeko.

Era berean, lurzatiaren ekialdeko muga doitzen da bide bide sistema berri honen ondorioz eraikuntzaren mugimendu arean izan den murrizketa konpentsatzeko.

Horretarako proposamena hauxe da:

– Fatxada lerroa atzera eramatea A-3216 errepidearekiko, errepide horren kanpoko ertzetik 25 metrora, Arabako Foru Aldundiaren Errepide Zerbitzuak xedatutakoari jarraituz.

– Fatxadaren lerroa, 14-823 katastro lurzattia mugakidearekiko, bi lurzatiek komunean duten mugatik 3 metrora kokatzea, halaxe xedatzen baita “Hegoaldeko industria area” izeneko 25 eremuaren hirigintza fitxan eraikuntzak lurzatiaren arteko barne mugetara izan behar duten gutxienezko atzeraemanguneetarako.

Hirugarrena. “Hegoaldeko industria area” Laguardiako hirigunearen hegoaldean dago, A-124 errepidearen (Gasteiz–Logroño) eta A-3216 errepidearen (Laguardia – Lapuebla de Labarca) alboan, eta 38.650 m² ditu.

Industria areen hirigintza araudia, lehendik dauden eremuei dagokienez eta oro har, udal planeamenduko araudi orokorraren 19.2.l) artikuluan jasota dago. Area horien kontsolidazioa bakarrik onartzen da, bai eta dauden jardueren eta eraikinen erreforma edo handitze puntualak jarduketa txikiak ere. Gainera, 25 arearen kasuan kasuan, indarreko arau subsidiarioen 93. artikuluan eta hurrengoetan eta dagokion hirigintza fitxan ezarritakoa beteko da.

Laugarrena. Agiri teknikoa eta administrazio espedienteak aztertu ondoren, egoki irizten zaio, Guardiako planeamenduko arau subsidiarioak eta aplikatzeko den hirigintza legeria kontuan hartuta.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Guardiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteak, “Hegoaldeko industria area” izeneko 25 eremuko erabilera bateragarriei buruzkoa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 26a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO